

Zuzendariaren hitzak

Beste azalberritze bat, ibilian jarraitzeko. Hemen gatoz, aldi berri eta oparago baten aiduru. Leloz, itxuraz eta osagarri berriz gatoz, eta baita kolaboratzaile eta kontseilu kide berrien konpainian ere. Azalberritze prozesuak ia bi urte eraman digu. Zer aldatu nahi dugun eta zergatik eta nori eta zer eskaini nahi diogun ondo pentsatu beharreko kontuak dira. Helburua, simple esateko, Jakin belaunaldi gazteagoei begira jartzea izan da, jakin badakigulako ondoren datozenek helduta baino ez duela izango etorkizuna Jakinek.

«Dabilen pentsamendua» dio Jakinen lelo berriak, eta, berri-tu bagara ere, egindako bideari egin nahi diogu men, dagoe-neko badirelako ia zazpi hamarkada Jakin oinez hasi zela. Ordudanik, mundualdi oso bat, denboran eta espazioan, arrasto bat, bide bat mapa berri baten gainean. Ibilian beti. Ibilian eta bilatzen. Bilatzaile, izpirituz, galderak eta auziak akuilu; eta, bidegile, bokazioz, zertarako baten argitan ibili behar delako. Euskaldun eta herri nola iraun, nola indartu, horra gure kezka; nola, gizatasun garaikide eta gizarte babesle baten bidean eta egungo gure auzi zahar eta berrien aurrean, ahalik eta galdera egokienak giten asmatzen.

Geldirik egon ez garelako seinale, azken 68 urteotan JAKINEN agertu diren milaka idazle, milaka artikulua eta ehunka auzi.

Guztien artean dabilen pentsamendu bat osatu da, mapa bat trazatu, geure bizipen eta esperientzia material eta sinbolikoen gaineko geure irakurketari zilegitasuna aitortu euskal pentsamendu bat munduari eskaintzeko. Hori gabe ezin da iraun, ezin da izan; lurmendu eta lurrunduko gara, kultura eta pentsamendu sendo bat daukana baino ezin baita jaiki. Pentsamenduaren bide horren lagin bat, osatu dugun *Jakin beharreko 222 esaldi* liburuxka. Bertan, ibilbide osotik hautatutako 222 egile nor bere aipuarekin ageri dira, hasi 1959tik eta 2024ra arte. Bidaia bat euskal pentsamenduan barrena.

Itxura berriz gatoz. Eta itxura berrituak atal berriak sartzeko aukera eman du, eta horrekin kolaboratzaile berriak inguratzekoa. Azaleko lehen argazki eder hori Irantzu Pastor argazkilariarena da, eta bera izango da aurrerantzean azala mamiz jantziko duena. *Jakin filosofatzen* atal berria ere sortu dugu: galdera eta erantzun laburren bitartez, el-karrizketa bizi baina sakonak osatuko dizkigu Itziar Ugarte kazetariak zenbakiro. Nerea Ibarzabali egindako lehen hau *delicatessen* hutsa den edo ez, esango diguzu, irakurle.

Dagoeneko hamarkada bat igaro da azken berrizetik, eta baita zuzendari aldaketatik ere. Eta orduko hartan lehen aldiz Kontseilu Editoriala osatu zen. Orain kide berriekin gatoz: Garazi Arrula idazle eta editorea, Mikel Urdangarin filosofoa, Cira Crespo historialaria, Sus-trai Colina bertsolaria, Iratxe Retolaza literatur kritikari eta ikertzailea eta Xabier Landabidea komunikazioaren eta teknologia digitalen ikertzailea. Ez da talde txarra egungo auziak hauteman, errealitatea sakontasunez aztertu eta galdera egokiak mahaigaineratzeko.

Egungo auzi garrantzitsu bat –batzuetan ikusten ez dena, baina korrontea bezala azpitik doana– jartzen du mahai gainean, hain zuzen, zenbaki berritu honek, baina galdera berrien sokan aztertuta. *Gatazkaren memoria, memoriaren gatazka* Usurbilgo Udalarekin eta UEUrekin antolatu ohi dugun Jakin Jardunaldiaren aurtengo ikastaroa izan da. Ikastaroa bera bezala, zenbaki hau ere mamitsua eta ekarpen aldetik berritzailea da. Horren meritua Cira Crespok, Iñaki Sagardoik, Olatz Dañobeitiak, Marikita Tambourinek, Maider Galardik, Samara Veltek, Onintza Legorburuk, Ane Alberdik, Julen Diaz de Argotek, Mikel Iburgurenek, Ekain Albitek eta Ione Zuloagak dute. Zenbaki bikoitz hau ixteko, ohiko legez, *Egunen gurpilean* atala dugu, Shu Otero, Joanes Igeregi eta Cira Crespo gure ohiko kolaboratzaileek osatua.